

## EUSKAL EMIGRANTIEN ABESTIA

Musika : Julian Lekuona

Itzak : Julian Lekuona

I

Euskal jendeok artu degu  
asaba zarren argia  
Ta izarrez pistu Euskal-erriko  
zeru guztia. //  
Gora begiratu ordea  
dakust gauz negargarria,  
emen ez diran euskaldunen  
itzal zatia. //

II

Batzuak gerrak aldeniak  
besteak bizi bearrak,  
orrela banatuak dira  
gure indarrak. //  
Zatozte berriz gure ondora  
ta pistu zuen izarrak,  
indar berriz pizkortuzeko  
gure ezur zarrak. //

### AI ZAK, I

Musika : Julian Lekuona

Itzak : Julian Lekuona

Errepika:

Ai zak, i  
kalean bildurrez  
oan ori (bis)

Abrigoan solapak altxata o  
txapela begitaño sarturik  
Ez duk atzera begiratutzen ere  
iñor ote datorren ikaraturik.

II

Ez aiz piyo ire etxean ere  
ez duk iñorrekin konfiantzarik  
Arropak ere errejistratzen dituk  
ba ote daukaken mikrofonurik.

III

Utzi itzak pintura poteak  
gorde ondo ire osasuna  
Pentsatu gero gaurko egunez  
kinielatan zegok etorkizuna.

### ILLARGIRA NOA

Musika : Julian Lekuona

Itzak : Julian Lekuona

Errepika:

Agur, agur, agur  
Illargira noa (bis)

Nerekin damazkit pentsakizunak  
neronekin ezin ikusiak,  
neronekin gose ta gorrotoak  
neronekin inbiri guztiak.

Emen uzten dituk nairik onenak  
emen pakea ta osasuna  
emen gizonaren eskubideak  
emen danontzat askatasuna.

Amets orla bart gabean egin dut  
amets onek jarri nau poztuta,  
baña Almeriako bonba orrek  
utzi dit ametsa zapuztuta.

Amaitzeko errepika: Eta orain ezin  
illargira joan (bis)